



**Josu
Telleria
Uriarte**



GAUR NERABEA DENA



Doinua:
Gogoratuko zara
Hamarreko txikia

Aldaketa garaia da nerabezaroa. Gurasoekiko harremana ere aldatzen hasten da. Lurrikarak gorputzean, eta lurrikarak etxean. Denok urduri, eta elkarri oihuka.

Gaur nerabea dena
atzo umea **zen**
gurasoak sarritan
ez gara **ohartzen**
bizitza azkar doa
oker edo **zuzen**
nahiz ta saiatzen naizen
ez zaitut **ulertzen**
bertsotan egingo dut
argitu **gaitezen**.

"Batu ezazu gela"
hamaikagarrenez
"oraintxe noa aita"
nahiko modu **txarrez**
telebista aurrean
ni jarri **naizenez**
"aita kendu erditik"
ta aita kendu **ez**
azkenean joan zara
gelara **negarrez**.

Gure etxeko giroa
lehertzen da **bronketan**
nazka azaleratuz
zure **begietan**
gutaz lotsatzen zara
leku **guztietan**
konpontzen duzu esaten
"utzi ni **baketan**"
ez zaitut ezagutzen
askotan **benetan**.

Zuk zer gertatzen zaizun
ez duzu **ulertzen**
eta guk ez zaitugu
sarritan **laguntzen**
gorputz-buruak ari
zaizkizu **aldatzen**
baina pentsa dezagun
zerk gaituen **batzen**
joan beharko dugu
denok **egokitzen**.

Gure aldartea ere
askotan nork **jakin**
lana, etxea eta
beste **abarrekin**
leporaino gaudenez
gure **ardurekin**
sarri ordaintzen dugu
ondokoarekin
ea gozatzen dugun
denok **elkarrekin**.

Sofan ere ez zatoz
aspaldi **ondora**
"nagusia" zarenez
badela **denbora**
lehengo kiliki, mimo....
orain ez da **moda**
lehen dena zen muxu
ta orain **aizkora**
desiatzen nago ta
etorri **altzora**.

Askotan daukat zure
irria **gogoan**
ohera burumakur
triste **joandakoan**
ia lasaitzen garen
guztiok **behingoan**
nahiz ta garai berri hau
gazi-gozo **doan**
beti izango nauzu
lastana **alboan**.



Doinu berezia da *Gogoratuko zara*. Errepika du azken aurreko puntuan.
Biribildu dezagun bertso bakoitzean zein puntu errepikatu duen bertsolariak.